



erreka

OLENTZEROGANDIK JAIOTZARA

por Juan San Martín

Euskal mitologian, Olentzerok, urte aroa sinbolizatzen du, edo nahi baduzu eguzkiaren gorabeheran, beheiten den aroa pertsonaia baten itxuran. Eguzkiarekin sua, eta suarekin egurra elkarri loturik datoz eta horregatik Olentzero ikazgin, horregatik keezulotik etxeetako sukaldetara. Aitzina etxeo sua zen «fogera» eta ahaideen bidez ere eman genezaioko nolabaiteko lotura.

Zentzuz begiraturik badakit aski konplexoa dela hori ulertzea, *Landuz* (1983) liburuaren 19. orrialdean hortaz ahalegindu nintzenarren.

Asko idatzi da Olentzerok. Bidasoa eskualdeko folklorea indartsu agertzen zaigu, batez ere Malarreka aldean, eta poliki adierazi zigun Luis de Uranzuk (Luis Rodríguez Gal) *Lo que el río vió* (1955) deritzan liburuan. Hinguru horretako historiaz eta ohituraz agiri baliagarriak eskainiz; «Olentzero» 423. orrialdetik aurreruntza aurkituko dugu. «Olentzero unbor» ordea, beste toki batzuetako Gabonbor edo Subillaro baizik ez da.

Gai hortan, Pio Baroja ez zebilen hain oker Olentzero paganoen edo jentilen eguzki ordezkoa zela esaten zuean. Baina, izenaren atzikiak ez da «-zarra», baizik «-aro» (= *época*), gaur oraindik euskalki batzutan ezagutzen den bezala.

Pertsonaia, andaz, txontxongilo gisa agertzen da, baina aitzinako Bako edo Dionisio bezal, jan-edana helburu duen pertsonaia arlotea. Hori da denborak zehar artu duen itxura. Izan ere, urtaro horretan, uztak josoak dira eta zerrri hilketak ez dira aspaldikoak. Jaki ugaritasuna nabari da negua sendotasunez igaro ahal izateko, negu hotzean osasunaren iraugarri. Aro eroa beraz. Baina badu aldeki onik horrek, daukanak ez daukanari ematea ere txontxongilo gisa ateratzen den Olentzeroren bidez beteko bai da, auzoz auzo eta etxez etxe eskean janariak bilduz. Azken batean, zer da ifartarren Aita noel? Hori agertzen nuen *Gogoz* (1978) liburuaren 19. orrialdean «Noel eta Olentzero»-ren kidetasunak orokorki behatuz.

Urtaroa da Olentzero, eguzkiaren berpizkunde itxaropena dakarrena. Irudia edo bere ordezko diren enborra edo sua, urtaroa ospatzeko. Euskal Herrian ez ezik mundu guzian, era batera edo bestera, agertzen zaigun kosmogoniazko sinboloa dugu Eguberriaren ospakuntzaz. Ifar-emisferiokoentzat neguren bihotza eta Hego-emisferiokoentzat udara.

Lesakan ohi den erara ederki bildu zigun Emilio José Esparzak liburuxka polit batean. Bertan agertzen zaigu jortoriz jentil mitologiakoa zen pertsonaia Kristoren sorreraren berria dakarren mezularitzat. Ondoko bertsoetan nabari da aldakuntza hori:

*Hemen heldu gerade
Berri-On batekin,
gure enbajadore
Olentzerorekin.*

Eta horren ondotik erabiltzen da maizenik beste honako bertso hau:

*Olentzaro joan zaigu
mendira lanera
intenziuarekin
ikatz egitera;
aditu duenean
Jesus jaio dela
lasterka etorri da
parte ematera.*

Baina lot natzaion Irungoari. Irunen, nik dakidala, Olentzeroak agertzen dira, baina ez dakit noiztik, ez da ere inork ezer bildu duenik. Bai ordea Eguberriko eskari erronda. Hau, Manuel Lekuona zenak bildutako koplak batean agertzen da, *Anuario de Eusko-Folklore*, XIII (1933), 53. orrialdean argitaratua:

*Horroko hor goian xagua:
Haren guardian katua;
Etxe hontako limosnarekin
Beteko dugu zakua.*

Jaiotzarena ordea, hain eredugarria ez bada ere, ikus dezagun Azkuek *Cancionero popular vasco*-rako mende honen hasieran Isabel Kerejeta irundarragandik jasao:

*Jesus jaio zan bainan
lehenagotik
aritu zan
Profeta ahotik
bazetorrela
Jesus mundura
dontzeilla eder baten
erraietara, erraietara.*

JESUS JAIO ZAN